

2008. urtean ospitaleratu ziren pertsonen % 42,6k 65 urte baino gehiago zituen

Zirkulazio gaixotasunak izan ziren ospitaleratze gehienek eragileak


Eustaten datuen arabera, Euskal AEko gaixo akutuen ospitaleetan 316.857 alta izan ziren 2008. urtean: ospitaleratzeak eta eguneko ospitaleetan izan ziren sarrerak kontuan hartuta. Alten % 74 ospitale publikoetakoa izan zen eta % 26 pribatuetakoa. Eguneko ospitaleetako egonaldiak aintzat hartu gabe, 2008. urtean 6,3 egunera jaitsi zen batez batesteko egonaldia (6,6 egun 2007. urtean).

2008ko ospitaleetako lau altatatik bat eguneko ospitalean eman zen. Unitate asistentzial horretan izan diren kasu batzuen, gaixoak sartu den egun berean alta hartu duen horien, kopurua funtsean gehitu egin da azken urteetan (2000-2008) eta horien artean nabarmentzekoak dira katarata ebakuntzak eta kimioterapia tratamendua.

Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak (kardiobaskularrak) izan ziren 2008. urteko ospitaleratze gehienek eragileak: guztira % 11,9. Ondoren, nerbio-sistemari eta sentimen-organoei lotutako gaixotasunak izan ziren nagusi (% 11,4), 2007. urtearen aldean % 16,7 gehitzean digestio-aparatuko gaixotasunen (% 11,1) aurretik geratu zelako.

Ospitaleetako altak, sexu bakoitzaren diagnostiko-multzo ohikoenak kontuan hartuta.

Altas hospitalarias por grupos de diagnósticos más frecuentes según sexo



Fuente: Eustat

Ospitaleetan egonaldi luzeenak eragin zituzten gaixotasunak buru-nahasteak (batez beste 12,9 eguneko egonaldia) eta jaiotza inguruko gaixotasunak (11,8 egun) izan ziren; gero, urrunago, gaixotasun infekziosoak (9 egun) eta tumoreak (7,4 egun) izan ziren.

Ospitaleratutako pertsona guztien % 51,7 emakumezkoa izan zen. Gizonak (% 48,3) baino emakume gehiago ospitaleratu zen haurdunaldi eta erditzeengatik. Adina gehitu ahala ospitaleen laguntza gehiago eskatu zen: 2008. urtean ospitaleratu ziren pertsonen % 42,6k 65 urte eta gehiago zituen. Ospitaleratutakoen batez besteko adina 57 urtekoa izan zen gizonen artean eta 60 urtekoa emakumeen artean. Bestalde, ospitaleratze gehien izan zuten pertsonak 74 urteko gizonak eta 76 urteko emakumeak izan ziren (haurdunaldiari, erditzeari eta puerperioari lotutako ospitaleratzeak kontuan hartu gabe).

Ospitaleetako erikortasun tasa ezberdina izan zen gaixoen sexua eta adina aintzat hartuta. Sexuak bereizita, zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren gizonezkoak ospitaleratzearen eragile nagusia eta gero digestio-sistemako gaixotasunak izan ziren. Emakumezkoen artean gaixotasun horiek hirugarren eta laugarren eragileak izan ziren, haurdunaldiaren, erditzearen eta puerperioaren ostean eta nerbio-sistemako eta sentimen-organoei lotutako gaixotasunen ostean.

Beste gaixotasun batzuk ere izan ziren garrantzitsuak, adin-tarte jakin batzuetan eragin berezia izan zutelako. Arnas eritasunak izan ziren nagusi 0-14 urteko gazteen ospitaleratzearen artean (batez ere amigdalak/adenoideak); hausturak eta lesioak (belaunaren lokadura) 15-44 urteko gizonen artean; eta osteomuskularrak 45-64 urteko emakumeen artean (belaunaren barruko gaitzak: meniskoa) eta digestio-aparatua gizonen artean (iztai-etena).

Era berean, zirkulazio-gaixotasunak (bihotz-gutxiegitasuna) eta nerbio-sistemari eta sentimen-organoei lotutako gaixotasunak (kataratak) izan ziren 65 urteko eta hortik gorako pertsonak ospitaleratzeko arrazoi nagusienak.

Ospitaleetako altak, diagnostiko-multzo handien, adinaren eta sexuaren arabera. 2008

Diagnostiko-talde handiak	0 - 14		15 - 44		45 - 64		65 eta gehiago	
	zonezkoak	umezkoak	zonezkoak	umezkoak	zonezkoak	umezkoak	zonezkoak	umezkoak
Guztira	9.087	6.384	30.366	53.012	46.261	36.920	67.385	67.442
Gaixotasun infekziosoak eta parasito-gaixotasunak	232	201	647	382	485	253	553	499
Neoplasiak (tumoreak)	253	187	1.181	2.803	5.231	5.140	7.864	4.952
Gaixotasun endokrinoak, nutrizioarenak eta metabolikoak	72	60	342	621	676	779	856	1.110
Buru-nahasteak	51	51	1.618	1.096	748	686	406	608
Nerbio-sistemako eta sentimen-organoei lotutako gaixotasunak	706	592	1.385	1.766	3.327	4.183	9.610	14.399
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	64	38	1.896	1.604	7.092	3.728	12.629	10.768
Arnas aparatuko gaixotasunak	1.982	1.534	2.905	2.034	3.347	1.921	8.693	6.209
Digestio-aparatuko gaixotasunak	1.019	736	4.602	3.518	7.176	3.915	7.934	6.425
Aparatu genitourinarioko gaixotasunak	656	261	1.145	4.155	2.323	3.095	4.110	3.148
Haurdunaldiko, erditzeko eta erditze ondoko arazoak	-	13	-	26.336	-	87	-	-
Azaleko eta larruazalpeko ehunetako gaixotasunak	144	132	1.564	900	818	703	731	800
Sistema osteo-mioartikularreko gaixotasunak	221	191	4.708	2.485	5.773	5.668	3.561	6.424
Sortzetiko anomaliak	901	396	291	585	147	194	36	46
Jaiotza-inguruan sortutako gaixotasunak	1.174	932	-	-	-	-	-	-
Gaizki zehaztutako sintomak, ezaugarriak eta egoerak	401	363	1.382	1.172	2.557	1.593	3.884	3.495
Lesioak eta pozoitzeak	703	355	5.172	1.492	3.632	1.992	3.358	5.531
Beste batzuk	508	342	1.528	2.063	2.929	2.983	3.160	3.028

Iturria: Eustat

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel.: +34-945-01 75 47 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/spanish/indice.asp